

Gasteiz "Arkeologia eta Karta museoen historiak bildu ditu Bibat-ek"

Arabako Arkeologia Museoaren eta Fournier Karta Museoaren historiak erakusketa batean bildu ditu Bibat erakustokiak.

Egun toki berean elkarrekin dauden bi museoek urteetan izan dituzten ibilbide bereiziei erreparatu die erakusketak. Beren historiaren historia izeneko bilduma Bibat-ek hartu duen aldi baterako lehen erakusketa da. Bihartik aurrera egongo da zabalik.

Sorrera eta bilakaera zeharo desberdinak izan dituzten Arkeologia eta Karta museoen historiei egindako omenaldi xumea da erakusketa, baina baita bi museoak Bibat-en batzeko lan egin duten pertsonei egindakoa ere. Bi museoen ibilbideak bateragarriak direla iritzita, historia biak elkartu ditu Bibatek. Armando Llanos erakusketaren komisarioak eman du erakusketaren berri, Lorena Lopez de Lacalle Kultura diputatuarekin batera.

Bi museoen funtsen aberastasuna eta balioa ikus daiteke erakusketan, argibide taula, bideo instalazio eta garai desberdinetako elementuen bitartez. Arkeologia Museoari dagokion atalak XVI. mendetik aurrerako bideari errepasoa egiten dio, orduan hasi baitziren denboraldi luze batean Araban egingo ziren ikerketa eta indusketak. Ikerkuntza horien urratsak eta museoaren historia argibide tauletan ikus daitezke.

Beirazko arasetan, berriz, Araban egindako arkeologia lanaren lekuko izan diren dokumentu eta lanak daude; tartean, XX. mendearen hasieran Jose Miguel Barandiaranek erabilitakoak: argiztapen, topografia eta indusketa elementuak, ikus agiriak biltzeko gailuak, eta indusketa lanaren emaitzak ziurtatzen dituzten memoria eta egunkariak. Halaber, 1978an Arabako aztarnategien katalogazioaren hasierako prestaeran erabilitako fitxa zulatuak eta 1985ean La Hoya-ko hirian egindako indusketan Juan Maria Gonzalez de Duranak azterketak egiteko erabilitako ordenagailuaren zatiak daude.

Bestetik, Heraclio Fournierren eskutik sortutako karta enpresaren historia bildu du erakusketaren beste atalak: lehenengo bi karta sortetatik abiatuta, haren iloba Felix Alfaro Fournierrek bilduma handitu eta Arabako Aldundiak funts guztiak erosi zituen arteko bidea, hain justu. Horrekin batera, kartei emandako askotariko erabilerak bilduma bitxi batean jasota daude: karta itxurarik ez duten kartak, irakatsi eta ikastekoak, eta joko eta iragarpenerako erabil daitezkeenak ikus ditzake bisitariak.

Eduarne Begiristain.